

Sarearen 2020ko lanaren balantzea eta 2021eko aurreikuspenak

Sareak 2020an egindako lanaren laburpena aurkezten dugu, nahitaez laburra.

Pandemiak gure gizarteak kolpatu dituen urte honetan, premiak larriagoak bihurtu dira eta Sareari oso inplikazio handia eskatu diote, partaideen osasuna ere batzuetan arriskuan jarri delarik. Zailtasun asko gainditu behar izan ditugu etxerik gabeko pertsonak, bereziki migratzaile gazteak, kalean artatzeko. Testuinguru horretan **gorpuztu da Sarea, eta egiaztatu da baliagarria dela** pertsona horien beharrei ekarpenak egiteko.

Elikagaien banaketa: 10.000 janari poltsa. 650 pertsona

Gosea arintze aldera, gurea bezalako gizarte ugarietan existitu behar ez lukeen zerbait, Sareak 200 pertsona eta familia ingururi asteko banaketa ziurtatu die. Horrek esan nahi du urtean zehar 10.000 janari-poltsa inguru banatu ditugula eta 650 pertsonari eman diegula arreta. Hori dena posible izan da 30 pertsonako talde baten inplikazioagatik, bai eta ehun bat emaileren ekarpenagatik ere, gure deialdiei erantzunez guztira 15.000 € eman baitute, bai eta orobat Kutxa Fundazioaren diru-laguntza batengatik ere, SOS Arrazakeriaren bidez lortutakoa, elikagaien eta beste gastu batzuen kapituluan 22.982 €-ko ekarpena egin duena. Horrela, Elikagaien Bankuak astero ematen dizkigun elikagaiak osatu ahal izan ditugu, bai eta zenbait ostalaritza-establezimenduk konfinamendu-hilabeteetan gauzatan egindako beste ekarpen batzuk ere, behar horiek duintasun minimo batekin estaltzeko.

**Indarguneak eta gabeziak**

Zifra horiek Sareak izan duen ahalmena erakusten dute, baita bete beharreko beharren bolumena ere. **Mugak finkatzeko beharra** ere erakusten dute, nahiz eta, non eta nola jarri behar diren jakitetik urrun gauden. Mugetako bat giza baliabideetan aurkitzen dugu. Boluntariotzan soilik oinarritzen den jardura batean, artatutako pertsonen kopurua handitzeak lan hori beren gain hartzen duten pertsonen kopurua handitzea ere eskatuko luke. Beste muga bat elikagaien gastuari aurre egiteko gaitasun finantzarioa da. Elikagaien Bankutik datorren ekarpen guztiz garrantzitsua bada ere, oso mugatua da, beharren aurrean. Hortaz, 2020an, 38.000 € inguruko finantzaketa propioa erabili behar izan da, gorago adierazi dugun bezala. Zalantzakoa da 2021ean antzeko finantzaketa bat errepikatu ahal izatea. Saiatuko gara, noski, baina, azken batean, hondorik gabeko putzua da, dauden premien aurrean. Era berean, ez da aurreikusten erakundeek aldetik ezagutzen ditugun ekimenek egoera hori nabarmen aldatuko dutenik. Zer egin orduan?

Kontuan hartu beharreko bide bat da **mota horretako ekimenak hiriko auzo gehiagotara zabaltzea**, hainbat modalitatekin. Merezimendu handiko esperientzia da Alde Zaharrako bizilagunena, Donostiako Alde Zaharrean. Bertan, egunero janari beroa (eta arropa) banatzen hasi ziren kalean lo egiten zuten bost bat laguni, orain dela lau hilabete. Gaur egun, pertsona horiek gaua auzoan igarotzen ez dutelarik, arratsaldero plater bero horren bila joaten diren kopurua hogeita hamarrera igo da. Horri eustea zaila da, iraunkortasuna eta prestasuna eskatzen baitu. Eta kostu handia ere badu. Horregatik, eta itolarria saihesteko, balio handikoa izango litzateke beste auzo batzuetara zabaltzea.

Ekimen hori, auzoan modu autonomoan sortua bada ere, badu Harrera Sarearen inplikazioa. Sareak zeregin garrantzitsua izan dezake ekimen horren antzekoak beste auzo batzuetan sortzean. Kontua ez da gure indarrekin soilik gure gain

36 BULETINA

hartzea, baizik eta auzo bakoitzean arazo horrekin sentsibilizatuta egon daitezkeen kolektiboak eta pertsonak dinamizatzea. Gaur egun Egian sortu dena ikusten ari gara. Beste auzo batzuetan aukera hori aztertzea animatzen dugu gizartea.

Konpainia egiteak

Konpainia egiteak, lehenik eta behin, **entzutea** esan nahi du. Ezinbesteko premia da, jatea bezala, entzungo dizun norbait izatea. Hortik aurrera, pertsona horiei **informazioa ematea, laguntzea eta dagozkien** erakunde-baliabideetara bideratzea. Konpainia emate- eta informazio-lan hori bereziki garrantzitsua izan da konfinamendu-hilabeteetan, eta lagundutako askok erakundeek egokitutako premiazko baliabideak eskuratzea lortu da. Era berean, laguntza horrek beste **gabezia asko identifikatzeko aukera** ematen digu, eta horietako batzuk konpontzen erraztea gure esku dago.

Guztira 650 manta banatu dira, **300 bat laguni arropa eta oinetakoak, 50 bat mugikor eta kargadore, hainbat sukalde, berogailu, hozkailu, dutxa, butano... 30 autobus-txartel** dagokion enbaxadan edo kontsuletxean dokumentazioa ateratzera joateko, edo beste hiri batera joateko non sare propioa izan dezaketen. Bereziki garrantzitsua da **alokatze**ko **gelak bilatzean** laguntzea, jabe askok uko egiten baitiote alokatzeari, maizterra migratzailea dela hautematen dutenean. Hala ere, hogeit bat gazterentzat lortu dugu. **Hizkuntza-klaseak** ere fruitu garrantzitsuak ematen ari dira; 35 gaztek parte hartzen dute haietan. Banaka ematen dira, Sareko beste hainbeste boluntarioen inplikazioarekin, eta hizkuntzen ezagutza aurrera egiteaz gain, lotura bat ezartzeko aukera ematen dute, askotan, klasetik harago doan lotura.

Konpainia-egite eta haren ondorioei esker, harreman zuzena lortu daiteke gazte horiekin, mutilak gehienak, zuzeneko babesa eskaintzea ahalbidetzen diguna, eta, aldi berean, gakoak ematen dizkiguna haien ibilbidea eta asmoak ulertzeko eta diren bezala ikusteko: pertsona gazteak, bizitzara irekitzen, etorkizun bat lantzen saiatzen ari direnak. Funtsezkoa da eginkizun hori ez dadila ahaztu lehen aipatutako elikagaien banaketaren garrantziaren azpian.

Gaur egun, **Sarea** gai da zeregin horri aurre egiteko, baina argi dago **inplikaturako pertsona gehiago** behar dituela. Eta hemen, mundu guztiak balio du. Adineko jendeak, bere esperientzia eta baliabideekin. Gazteak, esperientzia aberasgarri gisa beren nortasuna egituratzeko giltzarri den adin batean. Beren unibertsitate-ikasketak lan horrek ematen dituen ikasgaiekin eta praktikekin osatzen dituztenak.

Sentsibilizazioa/Salaketa

Arreta berezia eskaini diogu **pertsona horien egoera iritzi publikora eramateari**, ikusezintasuna saihestuz eta haien aurkako aurreiritzi eta estereotipoei aurre eginez, oinarritzko giza eskubideez ari garela erakutsiz. Aldi berean, etengabeko **salaketa- eta mobilizazio-lana** egin dugu erakundeei eskatzeko haiek beharrezkoak dituzten baliabideak, ea lortzen

den saihestea pertsona guztien harreraren eta eskubideen arloko adierazpen politiko ugariekin kontraesanean dagoen sufrimendua.

Horretarako, hainbat **mobilizazio deitu ditugu**; garrantzitsua *Ez itzazue kalera bota* kanpaina izan da. Kanpaina horrek mila pertsonaren babes esplizitua izan zuen, eta Donostian giza kate batekin burutu zen, Aldundiaren, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren egoitzak barne hartu zituen. **Okupaturako hainbat eraikinetatik kaleratutako pertsonen**





Red de Acogida Ciudadana Hiritarron Harrera-Sarea

BOLETÍN Nº 36

Iagundu diegu, azkena Infernukoa, eta erantzun-manifestazioa antolatzen parte hartu dugu.

Eskura ditugun tresnak erabili ditugu. **Buletin hau** horietako bat da, 2020an 35 zenbaki argitaratu baitira. **Elkarrizketa** ugari eman ditugu **prentsan, irratian eta telebistan**. **Batzar Nagusietako** Gizarte Politiken Batzordean agerpen bat egin dugu. **Udalarekin, Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin** bildu gara gure eskariak helarazteko. **Eta sareko lana indartu** dugu etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten **gainerako erakundeekin**.

Joan den urtarrilaren 24an, Hiritarron Harrera Sareak, Loiola Etxeak eta SOS Arrazakeriak, beste 24 erakunderen babesarekin, elkarretaratze bat deitu genuen Gipuzkoa Plazan, etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitza eskatzeko. Mobilizazioa bereziki gogorra izandako garai baten ostean izan zen, izan ere: hotzak bi pertsona akabatu zituen kalean, Zarautzen eta Hendaian, eta Infernuko lantegi abandonatu bat hustu ostean.

Martxo honetan, halaber, hainbat mobilizazio ditugu aurretik, eta horietan inplikatzeko garrantzitsua da. **Martxoaren 21ean**, igandean, **Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako Urteko Martxa** egingo da Pasaiaik Donostiako Boulevard-era. Aurten, hogeita laugarrenez egiten dugun honetan, baimen hori ez duten **pertsona guztien erregularizazio-eskaera** da ardatza. Sarea deialdia egin duen erakundeetako bat da.

Era berean, Harrera Sare gisa, «*Etxebizitzarako eskubidea bermatuko duen lege baten aldeko ekimena*» izeneko estatuko kanpainarekin bat egin dugu, eta horrek mobilizazioen bat ekarriko du, gure inplikazioa izango duena.

Erakundeekiko lankidetzak

Pertsona guztien konpondu gabeko behar sozialei aurre egiteko eta oinarritzko eskubideen errespetuari eusteko erakundeei etengabe eskatzeko jokabideak bat egiten du erakundeen baliabideak kudeatzeaz arduratzen diren gizarte-zerbitzuekin lankidetzak estuarekin. Baliabide horiek, nahikoak ez izan arren, beharrezko tresnak dira, eta gizarte-erakundeen inplikazioa ezinbesteko elementua da eraginkortasun handiagoa izan dazaten. Gizarte-zerbitzuak kudeatzen dituztenak, horietako gehienak profesionaltasuna eta dedikazioa zalantzan jarri gabe, egia da, ezin dutela kudeaketa askotara iritsi, ezta erabiltzaileekiko beharrezko enpatia lortu ere. Hor, Harrera Sarearen lana ordainezina da. Eta, egia da, izan ere, partaide-multzo txiki batentzat lan handia eta nekagarria esan nahi duela. Beste batzuetan, inplikazio eramangarriagoa izaten da. Hortan datza, hain zuzen ere, **eskubideen eskakizuna eta lan egiten duten arloetan kalean inplikatzeko uztartzen dituzten gizarte-erakundeen aberastasuna**. Hori da Harrera Sarearen funtsezko ezaugarria.

GORDE DITZAGUN DISTANTZIAK
ETXE BAT IZATEA ESKUBIDEA DA,
GAUZATU DEZAGUN

URTARRILAK 23 LARUNBATA
12:00 H
GIPUZKOA PLAZA

ATERKIAREKIN ETORTZEA KOMENI DA. DISTANTZIAK GORDEZKO ETA
ARRAZISMO, XENOFOBIA ETA APORAFOBIA ZAPARRADATIK BABESTEKO BALIOKO
DIGU.

DESBERDINTASUNA AURREIRITZIAK 1,5 m. COVID INKLUSIOA

BAZTERKERIA

MAR TXA!

ARRAZAKERIA ETA
XENOFOBIA ENFRENKATU
CONTRA EL RACISMO
Y LA XENOFOBIA

#Zure papera garrantzitsua da
#Tu papel es importante

#martxa2021



Red de Acogida Ciudadana
Hiritarron Harrera-Sarea

36 BULETINA

Egitura

Berrogeita hamarren bat boluntarioren partaidetza izan dugu, jarduera ugari egitea ahalbideratu dutenak. Uztailaz geroztik, jabeak doan lagatzen digun Harrerako lokal propioa dugu, eta bertatik banatzen ditugu elikagaiak eta arropa. Ekainera arte SOS Arrazakeriaren lokaletik egin genuen; horrela, libreago geratzen da ohiko funtzionamendurako, baina bilerak eta bestelako aholkularitza-lanak egiteko erabiltzen jarraitzen dugu.

Aintzatespena

Harrera Sareak ikusgarritasun eta aintzatespen handiagoa lortzen du egiten duen lanari dagokionez. Ildo horretan, nabarmentzekoa da SOS Arrazakeriak bideratutako Harrera Sareari Elkarlan 2020 Saria eman zaiola. Eusko Jaurlaritzak «balio publikoa batera sortzen duen erakundea» dela aitortzen du. Aintzatespen hori, Kutxa Fundazioaren babes ekonomikoa, Covid-19ko krisiari erantzuteko larrialdietarako laguntzen ezohiko deialdian ere bazekarren.

Sarearen Batzarra 2021era begira

Harrerak 2020an egindako ibilbidearen kontakizun azkar honi esker egiazta daiteke aipatutako erronkei aurre egiteko gai izanik emandako aurrerapauso. Horrek baikorrak egiten gaitu ikasturte honi begira. Badakigu beharrak ez direla txikiagoak izango, baina espero dugu aurre egiten jakitea eta gero eta boluntario gehiago inplikatzeari.

Horretaz hitz egiteko, Sarearen Batzarra deitu dugu datorren apirila, San Telmo museoan. Espero dugu sarea osatzen ari zaretenok bertan egotea, bai eta dohaintza edo baliabide materialekin unean-unean gure alde egin duzuenok ere, eta are gu ezagutza eta bertan inplikatzera motibatuta sentitzen zaretenok ere. SOS Arrazakeriarekin batera egin dugun **En la calle dokumentalaren emanaldi pribatu** bat ere izango dugu. 2021ean erabiliko dugun tresna izango da, sentsibilizazio gisa, gure herrialdeko auzo eta herrietan zehar. Joan den larunbata, 6, dokumentala ikusi genuen, bere protagonistekin.

Contacto: redacogidaciudadana@gmail.com 631 819 908 **Instagram:** @harrerasarea

Facebook: @HiritarronHarreraSarea **Youtube:** <https://youtu.be/yzK4tkf8Ot8>

Donativos: cc ES44 2095 5013 70 9119577666

